



Fitxa tekniko. *Txikitzen zaretenean.* Uxue Alberdi/Aitziber Akerreta. Pamiela Kalandrak. 2015

Liburuaren aurkezpena

Album ilustratu honetan kontrajarrian jartzen zaizkigu balizko haur baten bizipenak, helduek dituzten ardura eta betebeharrekin. Beti ere goraiatzen dira haurtzaroko jolas, kolore eta sentazio puruak. Haur baten ahotan jartzen ditu idazleak helduen munduko ardurak eta betebeharrak eta haurrei jolas eta irudimenezko bideak eskaintzen dizkio, irudimenezko bizipenak sortu eta gozatzeko. Ilustrazioek pisu handia hartzen dute esanahi osoan, jolas proposamen desberdinak burutzen dituzte erabiltzailearen gozagarri.

Nola kontatu

Txikia izateak zein abantaila dituen goraiatzen du liburuak. Orriz orri, behin eta berriz hausnarketa txiki batzuk bidera daitezke ilustrazioek aurkezten dizkiguten proposamenak aztertuz, ikasleek dituzten bizipenak eta irudimenezko aburuak jasotzearekin batera.

Proposamenak bideratzen

Zer egiten duzu zuk eta zer egiten dute gurasoek etxean, kalean, mendian... Irakasleari diktatu edota zuk idatzi eta marraztu.